2024ko otsailean erregistratutako langabezia

2024ko otsailean, 684 langabe gehiago erregistratu dira LANBIDEko bulegoetan, hau da, % 0,61eko beherakada; 110.545 langabe daude guztira. Otsailean hilabete arteko saldoaren bilakaera aldakorra izan da historikoki; hala ere, 2014tik aurrera saldoak negatiboak izan dira. 2015, 2018, 2021 eta 2024 urteetako otsailak nabarmentzen dira langabeen hileko saldoan izandako murrizketengatik, nahiz eta azken urte honetan neurri txikiagoan izan da.



	ots.-10	ots.-11	ots.-12	ots.-13	ots.-14	ots.-15	ots.-16	ots.-17	ots.-18	ots.-19	ots.-20	ots.-21	ots.-22	ots.-23	ots.-24
Saldoa	1.456	2.338	3.463	2.725	1.865	-1.270	-237	146	-1.091	-887	-410	-1.702	-129	-609	-694

Urte arteko saldoari dagokionez, erregistratutako langabeen kopuruak beherako joera positiboa mantendu badu ere, urtetik urterako saldoaren bilakaeran aldeak pixkanaka murrizten ari dira. Hala ere, hilabete honetan 2023ko otsailean baino 1.751 langabe gutxiago daude (%1,56ko murrizketa).

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 2013ko martxoko maximo historikotik 68.796 pertsonatara dago, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrena. Bestalde 39.590 langabe gehiago daude 2007ko ekainean baino, orduan erregistratu zen azken hamarkadetako minimo historikoa.

Beste otsailetako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko otsailean, 2013an baino 67.461 langabe gutxiago daude (% 37,9 gutxiago), eta 2007ko otsailean baino 29.585 langabe gehiago, hau da, % 36,5 gehiago.



• SEXUA

Sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, bai gizonek zein emakumeek hileko eta urteko langabe kopuruetan beherakada izan dute. Hala ere, jaitsiera-tasak zertxobait handiagoak dira gizonentzat bi aldietan. Hileko bilakaeran, emakumeek saldo negatiboa izan dute, 333 pertsona gutxiagorekin (-%0,52), eta gizonek 351 langabetu gutxiagorekin (-%0,75). Urteko bilakaeran 817 gizon (%-1,78) eta 934 emakume (%-1,44) gutxiago daude langabezian.

• ADINA

Datuek erakusten dutenez, 30 urtetik beherakoetan langabeen kopuruak gora egin du bai hilekoan (+47, +% 0,26) eta baita urtekoan (+174, % 0,97), eta igoera horiek nabarmenagoak izan dira gizonetan. Nabarmendu behar da gazteen artean egon den langabeziaren portaera txarra 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean langabeziaren gorakadak eragin duela batez ere, bai hileko saldoan (+240, +% 2,57), eta bai urtekoan ere (+576, +6,39).

30 eta 44 urte bitartekoek (-449 hilean eta -1.467 urtean) eta 45 urtetik gorakoek (-282 hilean eta -458 urtean) jaitsierak izan dituzte langabe kopuruetan, bai hilean bai urtean, eta bi adin-taldeetan nabarmenagoak izan dira beherakada hauek gizonen artean.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua sektoreka aztertuz, industriak, zerbitzuek eta eraikuntzak hileko eta urteko saldoan beherakadak izan dituzten bitartean, langabeziak gora egin du lehen sektoreko eta aurreko enplegurik gabekoen artean; +441 pertsona hilean (% 3,24ko hazkundea) eta 806 pertsona gehiago urtean (+% 6,08). Hauek izan dute ehunekotan hazkunde handiena, bai hileko zein urteko konparaketan.

Hilabete honetan, erregistratutako langabe kopuruaren murrizketa handienak eraikinetarako zerbitzu eta lorezaintzarekin lotutako jardueretan eta Administrazio publikoan gertatu dira. Aitzitik, etxeko langileen eta aurretik enplegurik ez zutenen artean, langabeen kopuruak gora egin du, bai hil arteko saldoan eta baita urte artekoan.

Urteko egoerari dagokionez, etxeko enpleguarekin eta programazioa eta aholkularitza informatikoarekin lotutako jardueretan gora egin du langabe kopuruak, baita aurreko enplegurik gabeko pertsonen artean ere. Bestalde, txikizkako merkataritza, hezkuntza eta administrazio publikoa izan dira langabezia gehien murriztea lortu duten jarduerak.

Xehetasun-maila handiagoan, honako hauek izan dira azken hilabetean langabeziaren jaitsieragatik gehien nabarmendu diren jarduerak:

78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	-619
85 Hezkuntza	-278
41 Eraikinak eraikitzea	-73
25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik	-67
24 Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuak	-51

Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	-186
84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	-116
87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-96
56 Janari- eta edari-zerbitzuak	-90

Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:	
Aurreko enplegurik gabekoak	441
97 Etxekoen unitateak etxeko langileen enplegatzaile gisa	89
45 Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	21
01 Nekazaritza, abeltzaintza	19

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan epe-luzeko langabezia 77 pertsonatan igo da. Iraupen laburrekoa 761 pertsonatan murriztu da. Iraupen luzeko langabe kopuruak guztizkoaren % 50etik behera jarraitzen du; zehazki, % 48,8 dira. Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian, beherakada gertatu da bai iraupen luzeko langabeen kolektiboan, -119 pertsona gutxiago (% 0,2ko murrizketa), bai iraupen laburreko langabeen kolektiboan ere, % 2,8 gutxiago (-1.632 pertsona).

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean, emakumeen artean, eta Bizkaian bizi direnen artean. Azken hilabeteko bilakaera erlatibo onena gizonei, 30 urtetik beherako pertsonei eta Gipuzkoan bizi diren pertsonei dagokie. Iazkoarekin alderatuta, nabarmentzekoa da iraupen luzeko langabeziaren hazkundea 30 urtetik beherakoen artean (+318 pertsona, % 7,0ko igoera); eta murrizketa emakumeen artean (-247 pertsona, -% 0,8) eta Bizkaian bizi direnen artean (-165 pertsona, -% 0,5) eta hazkundea Gipuzkoan bizi direnen artean (+80, + % 0,6).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, oro har, lurralde historiko guztietan izan dira beherakadak hileko eta urteko langabe saldoetan. Hala ere, murrizketa horien magnitudeak ezberdinak dira lurraldeen artean.

Araban izan da hileko jaitsierarik txikiena (-22, -% 0,12), eta Gipuzkoan izan da murrizketarik handiena, bai hilean (-382, -1,29), bai urtean (-472, -% 1,59). Bizkaiak ere behera egin du saldoetan, baina Gipuzkoakoak baino pixka bat gutxiago.

EAEko hiriburuetan jaitsierak erregistratu dira bai hileko bai urteko langabezietan, baina tasak ezberdinak dira hiriburuen artean. Donostiak hileko (-98, -% 1,39) eta urteko (-129, -% 1,82) jaitsiera esanguratsuenak ditu, eta Vitoria-Gasteizek (-183, -% 1,24) urteko jaitsierak Bilborekin alderatuta (-15,-%0,07).

Otsailean erregistratutako langabezia-indize handienak izan dituzten udalerriak Sestao (% 15,76), Oion (% 14,91), Amurrio (% 14,9), Lanestosa (% 14,78) eta Balmaseda (% 14,69) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024 otsailean, 36.191 langabek (aurreko hilean baino 139 gutxiago) langabezia-prestazioren bat jaso zuten. Gaur egun, langabeen % 32,7k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 18,5ek (20.429 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute. % 13,08k (14.462) langabezia subsidioren bat jasotzen dute. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du babes handiena (% 35,4ko tasa), Araban % 31,0koa da eta Bizkaian % 32,0koa

Urtarrilaren aldean, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,08 puntu igo da, eta iazko otsailaren aldean 0,30 puntu jaitsi da.

• JATORRIA

Langabe guztietatik 20.665 (% 18,7) atzerritarrak dira. 2024ko urtarrilaren aldean, langabeziak % 0,35 egin du gora atzerritar jatorriko pertsonen artean. Urte arteko bilakaeran atzerritar jatorriko langabeen kopuruak % 9,19 egin du gora, aldiz, bertakoen artean % 3,74 egin du behera.

Atzerriko langabeen % 32,7 Afrika iparraldetik datoz, % 27 Latinoamerikatik, % 15,6 Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,5 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,2 Asiatik. Azken hilabetean langabezia gehien igo den jatorriak Hego Amerika (+91) eta Ipar Afrika (+16) daude.

• IKASKETA MAILA

61.874 langabek, guztien % 56,0k, asko jota derrigorrezko ikasketak dituzte. Azken hilabetean, oinarrizko prestakuntza maila hau duten 79 pertsona gehiago daude langabezian, hau da, % 0,13 hazi da. Azken urtean, berriz, langabeziaren beherakada % 0,42koa izan da derrigorrezko ikasketak dituztenen artean (-258 pertsona).

Batxilergoa duten langabetuak langabe guztien % 7,9 dira. Azken hilabetean % 0,47 igo dira eta azken urtean, % 1,13ko gorakada izan dute.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 27.512 dira, guztizkoaren % 24,9. Hil honetan -384 pertsonako saldo negatiboa egon da eta iazko otsailarekin alderatuta, % 1,27 murriztu da.

Azkenik, % 11,3k (12.440 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu. Ikasketa-maila hori duten langabetuak izan dute bilakaera onena, bai hilabeteko saldoan (% 3,27ko murrizketa eta -420 pertsona, baita iazko datuekin alderatuta (-1.236 pertsona eta % 9,04 gutxiago).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 0,27 murriztu da, 7.452 pertsona gutxiago, eta guztira 2.760.408 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 0,61 jaitsi da. Nafarroan % 1,12 igo da, Errioxan % 0,8 igo da, Kantabrian % 0,48 igo eta Gaztela-Leonen % 0,61 murriztu. Katalunian % 0,2 jaitsi da, eta Madrilen % 0,15 igo.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko otsailean

	Ots-2024	Urt-2023	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	46.714	47.065	-351	-0,75
EMAKUMEZKOAK	63.831	64.164	-333	-0,52
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.183	18.136	47	0,26
GIZONEZKOAK	8.862	8.831	31	0,35
EMAKUMEZKOAK	9.321	9.305	16	0,17
25-44 URTE:				
GUZTIRA	31.860	32.309	-449	-1,39
GIZONEZKOAK	12.240	12.476	-236	-1,89
EMAKUMEZKOAK	19.620	19.833	-213	-1,07
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.502	60.784	-282	-0,46
GIZONEZKOAK	25.612	25.758	-146	-0,57
EMAKUMEZKOAK	34.890	35.026	-136	-0,39
SEKTOREA:				

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.105	2.086	19	0,91
INDUSTRIA	10.514	10.680	-166	-1,55
ERAIKUNTZA	6.144	6.210	-66	-1,06
ZERBITZUAK	77.712	78.624	-912	-1,16
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.070	13.629	441	3,24
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.902	18.924	-22	-0,12
BIZKAIA	62.478	62.758	-280	-0,45
GIPUZKOA	29.165	29.547	-382	-1,29
EAE	**110.545**	**111.229**	**-684**	**-0,61**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.866	10,2%	-22	-0,57	78	2,06
Oarsoaldea	3.330	8,9%	-49	-1,45	-69	-2,03
Donostia-S.Seb.	6.965	7,8%	-98	-1,39	-129	-1,82
Donost.Oeste	2.856	7,3%	-16	-0,56	-189	-6,21
Tolosaldea	1.802	7,4%	-35	-1,91	-65	-3,48
Urola Erdia	1.155	7,3%	-31	-2,61	-47	-3,91
Goiherri	1.621	7,5%	41	2,59	-4	-0,25
Alto Deba	2.362	7,7%	-62	-2,56	15	0,64
Bajo Deba	2.698	10,2%	-47	-1,71	50	1,89
Urola Garaia	1.043	8,5%	-5	-0,48	-48	-4,40
Urola Kosta	1.467	6,3%	-58	-3,80	-64	-4,18
GIPUZKOA	**29.165**	**8,2%**	**-382**	**-1,29**	**-472**	**-1,59**
Vitoria-Gasteiz	14.616	11,4%	-38	-0,26	-183	-1,24
Valle de Aiala	2.177	11,5%	-54	-2,42	-38	-1,72
Rioja Alavesa	624	10,9%	32	5,41	7	1,13
LLanada Alavesa	681	9,0%	6	0,89	-15	-2,16
Estrib. Gorbea	294	5,9%	2	0,68	-30	-9,26
Valles Alaveses	391	7,5%	-2	-0,51	-16	-3,93
Montaña Alavesa	107	6,5%	2	1,90	17	18,89
ARABA	**18.902**	**11,1%**	**-22**	**-0,12**	**-767**	**-3,90**
Gobela	4.336	8,4%	-43	-0,98	-114	-2,56
Txorierri	2.069	8,8%	-22	-1,05	-45	-2,13
Uribealdea	2.841	8,1%	-26	-0,91	-67	-2,30
Duranguesado	3.111	8,2%	-76	-2,38	-89	-2,78
Busturialdea	2.074	9,3%	-46	-2,17	-82	-3,80
Lea-Artibai	893	7,4%	13	1,48	-65	-6,78
Encartaciones	1.935	12,2%	16	0,83	40	2,11
Arratia-Zornotza	1.445	8,1%	24	1,69	37	2,63
Medio Nervion	1.295	9,7%	4	0,31	-28	-2,12
Bilbao	21.640	12,7%	-94	-0,43	-15	-0,07
Margen Izquierda	16.465	13,0%	54	0,33	20	0,12
Ibaizabal	4.332	10,5%	-82	-1,86	-81	-1,84
BIZKAIA	**62.478**	**11,0%**	**-280**	**-0,45**	**-512**	**-0,81**
CAPV	**110.545**	**10,1%**	**-684**	**-0,61**	**-1.751**	**-1,56**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.